

ALTZAKO KIROLDEGIARI ETA AMIANTOZ KUTSATUTAKO LURZORUEI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKORRERA EZ DEITZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, Altzako kiroldegiari eta amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzko batzorde ez-iraunkorrera ez deitzeari buruzko **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, Udalbatzak azter dezan. Uztailaren 9ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako kiroldegiari eta amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzko batzorde ez-iraunkorrarentzako finkatutako bileren maiztasuna ez da betetzen; alabaina, oraindik ikertzeko kontu asko daude, eta konponbide egoki asko eskaini behar dira pertsonen eta ingurumenaren segurtasunari lotuta. Hori dela eta, aurtengo ekainaren 13an, Hirigintza Iraunkorreko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariaren agerraldia eskatu genuen batzorde ez-iraunkorren horretan. Interpelazioa tratatu arteko egunera arte, ez genuen inolako erantzunik jaso, isiltasuna bakarrik.

Hirigintza Iraunkorreko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak batzordean onartu zuen ahoz batez erabakitako bileren maiztasuna ez dela betetzen ari. Nolanahi ere, finkatutako maiztasun hori alde batera utzita, iruditzen zaio gobernua informazioaren bat eman behar duenean deitu behar liratekeela bilerak.

Ez gaude ados erantzun horrekin, zenbait arrazoirengatik. Lehenik eta behin, aipatutako batzordea osatzen dugun pertsonok komunikabideen bidez izaten dugu osasun publikoari lotutako gai delikatu horri buruzko kontu batzuen berri; tamalgarria eta ohikoa da hori, eta batzordea osatzen dugunokiko gutxieneko adeitasun eta errespetu arauak hausten ditu. Bigarrenik, batzordearen helburua ez da gai garrantzitsu horri buruz Udal Gobernuak hartzen dituen erabakien berri ematea bakarrik, baizik eta inguruan kutsatuta egon daitezkeen espazioak behar bezala identifikatzeko neurriak eta konponbideak proposatzeko aukera izan behar lukete kide guztiek, bai eta neurriei buruz eztabaidatzekoa eta informazio propioak jakinaraztekoa ere.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio errespetatu dezala Altzako kiroldegiari eta amiantoz kutsatutako lurzoruei buruzko batzorde ez-iraunkorraren funtzionamendu egokirako finkatutako bileren erregimena.

2.- Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio, haren ardura eta aukerak kontuan hartuta, saihesteko filtrazioak, aipatutako batzordeko kideek ez dezaten komunikabideen bidez izan organo horretan jorratu beharreko gaien edukien berri.

3.- Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari eskatzen dio, gai horri buruz aho batez egindako akordioen ildotik, jarrai dezala lanean amiantoz kutsatutako guneen mugak erabat identifikatzeko, oraindik egin gabe baitago hori; horrez gain, eskatzen dio pertsonen eta ingurumenaren segurtasuna zaintzeko neurririk egokienak har ditzala.

Donostia, 2018ko uztailaren 12a

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.